

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irungo

365

Urtarrilak 15, 2020

- 2 Irun atzo Irun Gaur
- 3 Ola Sagardotegia
- 4 Berri laburrak
- 5 Neur
- 6 Txingudiko Pentsionistak
- 7 Kirolak: Zaisa Txingudi
- 8 Kirolak: Erroibide Irun
- 10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11 Haurren leihoa
- 12 Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Asun Casasola lehiaketa
- 14 Gazte informazioa
- 15 Agenda

Saskibaloia sustapena Erroibiden



Argazkia: Estudio Gover

ola
SAGARDOTEGIA
Iñaki Bengoetxea

**TXOTX BERRIA
IREKIERA FESTA**

Urtarrilak 19

ZATOZ!

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



1920ko urtarrilaren 25ean argitaratu zen "El Bidasoa" aldizkariaren 230. zenbakia. Bertan, hiriaren gaurkotasuna jarraitzen da albiste ezberdinen bitartez. Aldizkaria politikaren inguruko artikulu batekin hasten da, hauteskunde kanpainarekin lotutako txutxumutxuak laburbiltzen dituena. Jarraian, "Arrantzalia" titulua duen idatzi argitaratzen du Txori Txikik. "Aspectos locales" atalean, berriz, hiriko azken gertakarietan erreparatzen da, hau da, azken egunetako eguraldi ona, aguzil eta gauzainen antolakuntzan edo udal bilkuretako eztabaidetan. "Arkalek" Policarpo Balzolarek bizitza eta lana laburbiltzen dituen artikulua sinatzen du aldizkariaren zenbaki honetan.

Kirolen sailean Eibar Klubak Real Union taldearen aurka aurreikusitako hitzorduan kale egin eta, bitartean, Santanderreko Racing Klubaren aurka lagunarteko partidua jolastea erabaki zuela salatzen da. Gainera, arratsalde horretan bertan talde irundarrak jokatu duen hurrengo partidua ere xehetasunak ematen dira. Zenbaki honetan ere Jose Mariscalek Colon pasealekuaren bilakaeraz hitz egiten duen artikulua publikatzen da. Ondoren, hauteskunde kanpainari loturik, "Centro Republicano" alderdian gertatutako zatiketaz hitz egiten da. Horren ostean, trenbideetako langileek haien elkartearen inguruan antolatutako bazkaria aipatzen da, horrekin batera, bazkarira "El Bidasoa" komunikabideko kazetariak gonbidatu izanarengatik eskerrak ematen direlarik. Orrialdearen amaieran, Irunen izandako bisitari batek hiriari egindako kritika publikatzen da.

Hirugarren orrialdean, berriz, "El Bidasoa" aldizkariko zenbaki guztietan errepikatzen diren atal finkoentzako lekua gordetzen da. Horrela, "El Municipio" atalak azken udal bilkuretan hartutako erabakiak biltzen ditu, ondoren, antzokien programazio guztia argitaratzen den bitartean. Jarraian, "Ecos de sociedad" atalaren segidan, "Hace años" edo "Noticias" bezalako ataletako testuak irakur daitezke. Azkenik, hiriko denda eta negozioen publizitate iragarkiekin betetako laugarren orrialde batekin "El Bidasoa" aldizkariaren 230. zenbakia amaitzen da.

Argazkiak:

29106: Trena nazioarteko zubia zeharkatzen Bidasoa ibaiaren gainetik.
57772: Karabineroa eta trenbideetako langilea Iparraldeko trenbide alboan. Atzerago, Colon pasealekuko zubia eta Irungo tren geltokia. XX. mende hasierako argazkia.

48956: Colon pasealekuaren argazkia XX. mende hasieran.

IRUNERO**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Urtarrilaren 19an txotx denboraldiari hasiera emango diote Ola sagardotegian



Ola sagardotegiko kupelak sagardoaz gainezka daude jada 2020ko Txotx denboraldiari hasiera emateko prest. Ohikoa denez, urtarrilaren 19an, denboraldiaren inaugurazioa ospatuko da Irungo Meaka auzoan kokatutako sagardotegian. Iñaki Bengoetxea Ola sagardotegiko nagusia Txotx irekierarako azken prestaketa lanetan murgildurik dabil egun hauetan.

Zer antolatu duzue 2020ko txotx denboraldiaren irekierarako?

Urtero bezela Txox denboraldiaren irekiera ospatzeko norbait omenduko dugu eta aurten Miguel Alzaga gonbidatu dugu gurera, pelotaria eta trinkete munduan ibilitakoa. Omenaldiaren ondoren, txotxa ireki eta trikitixa eta bertsolariekin festa izango dugu. San Antonetik bueltan etorri nahi duenak bertan festa topatuko du.

Giro polita sortzen da egun horretan Ola inguruan?

Bai, betidanik erromeri antzeko zerbeit antolatzeko ohitura izan dugu eta oraindik mantentzen saiatzen gara. San Antonetik bueltan datorren jende asko pasatzen da hemendik.

Oraindik igandean bertan bazkaltzeko toki libre asko daukazue?

Gehiena beteta dago, jendea oso goiz mugitzen da egun horretan tokia izango duela ziurtatzeko.

Zein ezaugarri ditu aurtengo sagardoak?

Mehe xamarra da, beraz, gutxiago mozkortuko gara aurtengo sagardoarekin, izan ere, alkohol graduazio baxuagoa du eta. Sagardo sendoak eta gorputzekoak onak izan arren, aurtengo sagardoa disfrutatzea errazagoa izango dela uste dut.

Eguraldiak sagarren ekoizpenean lagundu du?

Bai, nahiz eta nahiko arraroa izan den. Udaberria oso goiz etorri zen, udara erdipurdika eta udazkena, hala

nola, moldatu zen. Kantitate asko izan dugu eta egia da horrelakoetan gorputza murriztu egiten da.

Hortaz, sagar asko bildu dituzue ezta?

Bai, asko, etxean barrik 200 toneladatik gora, guztira, 250 tonelada.

Noiz hasi zineten sagarrak biltzen?

Irailaren 16an sagarrak biltzen hasi ginen eta bi hilabete pasa eman genituen sagarrak biltzen. Gustora ibili naiz, baina, aurten luzea izan da.

Sagardoaz gainera, sagardotegiko menua osatzen duten osagaien kalitatea ere garrantzitsua da?

Bai, horregatik haragiaren kasuan adibidez, inguruko haragia hautatzen ahalegintzen naiz. Aurtengo nobedadea txingarra gora eta behera mugitzen duen parrila berriaren estreinaldia izango da. Sagardotegitik leiho bat ireki dut jendeak txuleta nola erretzen den ikusteko aukera izan dezan. Aspalditik nuen ilusioa nuen eta oso funtzionala izango dela uste dut.

Denboraldia zehar zein izaten da sagardotegira jende gehien hurbiltzen den garaia?

Eguraldiaren arabera, jendea gehiago edo gutxiago hurbiltzen da larunbat eta igande eguerditan. Gauetan, aldiz, otsaila erdialdekoak izaten dira denboraldiko egunik jendetsuenak.

Ze gomendio emango zenituzke sagardo denboraldiaz gozatzeko?

Jendea Olara etortzera gonbidatzen dut, sagardoa edan eta dastatzera. Presarik gabe, zapore desberdinak probatzeko aukera izan dezaten kupel batetik eta bestetik. Batez ere, ondo pasatzea, baino, gehiegi pasatu gabe.

Noiz arte luzatuko duzue 2020 denboraldia?

Maiatzeko azken larunbatean amaituko dugu aurtengo denboraldia urtero bezela. Horretarako, kantaldi bat antolatuko dugu eta bertsolari eta trikitilariak izango ditugu berriro gurekin.



- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585

info@inmobiliariaolaizola.com

www.inmobiliariaolaizola.com

Eguerdi On topaketei eutsiko die Bidasoa Bizirik 2020. urtean zehar

Eguerdi On izeneko topaketetan hilero eskualdeko pertsona ekintzaileak biltzen dira, euren artean komunitatea sortzeko helburuarekin. Orain arte Irun eta Hondarribian antolatutako bilerek izandako arrakasta ikusita, 2020. urtean zehar ekintzaileen arteko topaketak antolatzen jarraitzea erabaki du Bidasoa Bizirik elkarteak.

Ekintzailetza-ekosistemari balioa emateko helburua duten topaketak Irun eta Hondarribiko Udal, Irun Ekin-tzan eta Hondarribia Abian ekimenen elkarlanari esker antolatzen dira. Eguerdi On topaketak jarduera finkatze-prozesuan dauden enpresa berriei laguntzeko jarri zen abian, horrela, Bidasoa Bizirik kudeatzen dituen enpresa-zentroetan kokatutako enpresa-komunitateak sendotzearekin batera kohesioa sortzeko.

Maiatzeko hilabetetik enpresa zentro horietan lan egiten duten 26 pertsona ekintzaile hilean behin bildu dira Irun

zein Hondarribian eta bakarka zein taldeka sortutako kezkek landu dituzte.

Topaketak eguerdian izaten dira beti, eta, bazkaltzen duten bitartean, ekintzaileek elkarri eragiten diote, pres-takuntza aktiboki jasotzen duten bitartean. Hau da, di-namika aktiboen bidez lan egiten da, eta dinamika horietan beraiek dira protagonistak eta elkarri laguntzen diote, antzeko egoerei aurre egiten dieten pertsonak bai-tira.

Aurrera begirako proiektua

2019. urtearen amaierarekin Eguerdi On topaketen ur-teko azken saioak antolatu ziren. Azken bilera horietan maiatzetik aurrera antolatutako topaketak eskualdeko ekintzaleentzako lagungarriak izan direla ondorioztatu zen, beraz, 2020. urtean zehar proiektuarekin aurrera ja-rraitzea erabaki zen.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots "Bizi Dantza" ikuskizuna ekarriko dute Irunera

Eguerdi On izeneko topaketetan hilero eskualdeko pertsona ekintzaileak biltzen dira, euren artean komunitatea sortzeko helburuarekin. Orain arte Irun eta Hondarribian antolatutako bilerek izandako arrakasta ikusita, 2020. urtean zehar ekintzaileen arteko topaketak antolatzen jarraitzea erabaki du Bidasoa Bizirik elkarteak.

"Bizi Dantza" ikuskizuna Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik iritsiko da otsailaren 8an Irunera. Euskal Herriko bazter guztietan kokatutako hiri eta herrietan ibili ostean, bi emanaldi eskainiko dituzten egun berean Amaia Kultur Zentroan. Dantza da pailazoen euskarazko emanaldi berri honetako ardatza.


Pirritx, Porrotx eta Marimototsek bi emaldi eskeiniko dituzte otsailaren 8an Irungo Amaia Kultur Zentroan. Arratsaldeko lehenengo emanaldia 16:00etan hasiko da eta, bigarrena, berriz, 18:30etan. Irunen egingo diren ikuskizunetaz gozatzeko sarrerak 4,40 eurotan salduko dira. Sarrerak internet bidez Amaia Kultur Zentroaren webgunean sarreraren salmentara bideratutako estekan

edo Irungo Turismo bulegoan erosteko aukera egongo da. Hortaz gain, emanaldiaren egunean bertan antzokiaren lehiatilan ere saldu gabe dauden sarrerak salgai jarriko dira.

"Bizi Dantza"

Bizi Dantza emanldian euskal pailazoen lurra sortu zen unetik bertatik, lurra bere buruaren eta eguzkiaren inguruan dantzan dabilela azalduko diete etxeko txikiei. Hortaz gain, animaliak ere sortu ziren unetik bertatik, inguruan dantza dabiltzala ikusteko aukera izango dute.

Hortaz gain, gizakien izaeran ere, animalien antzera, dantza oinarriko zerbait dela erakutsi nahi da Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldi berrian, izan ere, ikuskizunaren sinopsiak azaltzen duenez, "hitzaren jabe izan aurretik datzatzen gara". Era honetan, dantzaren bitartez sentimenduak erakustez gainera, bertako kultura ospatu eta errituak berritzen ditu mugimenduak. Bera, "Bizi Dantza" emanaldiak etxeko kide guztiak dantza jarriko ditu.



la
BIO
teka

Denda ekologikoa

Garputz konposaketaren analisiak

HEYONUT - Fruitu lehor-krema

Aukeratuako produktu ekologikoa

Produktu onenekin batera zure ECOBOXa hilabetera jaso ezazu

bioteka.es



Beraketa 15, Irun



943 63 04 68

Beñat Neketan, Neur enpresako nagusia:

“Errazagoa da gure piezak urrutiko herrialdeetan aurkitzea hemen inguruan baino”



Beñat Neketan trokeleria eta era askotariko piezen lanketan lan egiten duen Neur enpresa irundarreko nagusia da. Bere aitak martxan jarritako enpresan mekanizatu eta torno lanak egiten zituzten hasieran. Orain, ordea, enpresaren jarduera hazten doan heinean espezializatorako bidea hartzea erabaki du enpresaburu gazteak.

Zein izan da zure ibilbidea enpresako nagusi izatera iritsi arte?

Eskolan ilusio handiz hasi nuen nire formakuntza, etorkizunean nire gustuekin zerikusia izango zuen lanpostu bat topatzeko asmoz. Mekanizatu sektorearen inguruko goi-mailako gradua egin nuen. Horrela, aitaren enpresa txikian lanean hasi nintzen sektorea ezagutzeko. Inbertsioen bitartez enpresak gora egin zuen eta, krisialdi ekonomikoak gogor jo zuen arren, teknologia berria txeratu eta berriro enpresak gora egitea lortu genuen.

Mota honetako goi karguetan ohikoa da jende gaztea ikustea?

Pixkanaka gazteak sektore honetan sartzen hasi direla esango nuke. Ezagutza maila altua beharrezkoa da, teknologia konplexuarekin lan egiten dugulako. Orokorrean, 50 urtetik gorako jende asko dago, baina, hortik behera oso gutxi. Hala ere, oso garrantzitsua iruditzen zait jende gaztearen aldeko apustua egitea, etorkizunean sektoreak lan egingo duten profesionalen kalitatezko formakuntza eskaini ahal izateko.

Zeintzuk izan ohi dira zuen bezeroak?

Denetarik dugu. Azkenaldian aeronautikaren munduan sartu gara eta, hortaz gain, automozioan ere lan egiten dugu. Mota askotako piezak sortu arren, azkenaldian es-

pezializazioaren aldeko apustua egitea erabaki dugu. **Zuen bezero gehienak eskualdeko enpresak dira?**

Gure produktuak Euskal Herri inguruan saltzen ditugu, baina, horrek ez du esan nahi enpresa handiekin lan egiten ez dugunik. Enpresa handi horien menpe dauden enpresa txiki edo ertainekin zuzeneko harremana dugu guk, geroago, gure lana munduan zehar banatzen laguntzen digutenak. Izan ere, errazagoa da gure piezak urrutiko herrialdeetan aurkitzea hemen inguruan baino.

Nazioarteko merkatuaren mugimenduei erreparatzen diezue?

Bai, handia izan nahi baduzu ezin zara hemen gelditu. Zure begirada mundura ireki behar duzu, lehenengo Europako sektorean produktuak sartu eta, ondoren, kanpora ateratzeko.

“Handia izan nahi baduzu ezin zara hemen gelditu”

Nola ikusten duzu egun euskararen erabilera enpresa industrialen sektorean?

Hemen euskara, gaztelera edo beste edozein hizkuntza bezala erabil daiteke. Frantsesa hemen inguruan asko erabiltzen den beste hizkuntza bat da. Euskararen erabilera ez doa sektoreari loturik, baizik eta enpresan lanean dabiltzan pertsonen konpromezu mailarekin. Bera eta Lesaka aldean oso ohikoa da euskara erabiltzea, Donostia inguruan denetarik dago eta Irunen, aldiz, erabilera murriztagoa da.

Bilakaera handia antzeman duzue zuen sektorean azken urte hauetan?

Gure sektoreak teknologian aurrerapausoak era etengabe ematen ditu. Ondorioz, ekoizpen maila geroz eta handiagoa da, makinaren kalitatea hobea da eta langileen lan baldintzak hobetzea laguntzen du. Hala ere, aurrerapauso horiek enpresa bakoitzak egiten duen inbertsioari loturik doaz.

Enpresaren komunikazioa hobetzeko apustua egin duzue azkenaldian?

Bai, oso garrantzitsua da egun interneten zure informazio eskuragarri egotea. 837 Komunikazio eta Publizitate enpresaren laguntzari esker (837comunicacion.com) gure gabezia teknologikoak antzeman eta beharrezko pausuak eman ditugu iraultza teknologikora batzeko.

“Gure sektoreak teknologian aurrerapausoak era etengabe ematen ditu”

Etorkizunari begira, zeintzuk dira Neur enpresaren erronkak?

Merkatuaren lehiakortasunari begira, geroz eta produktu hobek eskaintzen saiatzen gara, teknologia berrienaren bitartez ekoiztuak direnak. Horrela, metalurgiaren sektoreak dauzkan beharrak betetzea da gure helburu nagusia, beti kalitate onenarekin.

Bi urteren ostean borrokan jarraitzen du Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak



Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak bi urte baino gehiago daramatza hiritar guztientzat pensio publiko eta duinak erreklamatzeko. Ordutik, astelehenero eguerdiko 12:00etan San Juan plazan biltzen dira eta jada 100 elkarretaratze baino gehiago antolatu dituzte. Bigarren urterena ospatzeko udaletxe aurrean txistorrada berezia antolatu zuten urtarrilaren 13an, jai giroaren languntzaz pensio duinen aldeko aldarrikapenak zabaltzen jarraitzeko.

Txingudiko Pentsionisten Mugimendua duela bi urte boluntarioen elkarlanetik sortutako taldea da. Astelehenero Irungo San Juan plazan egiten diren kontzentrazioak antolatzeaz arduratzen da taldea. Mugimenduko kideek behin eta berriro azaldu dutenez, "mugimendua independentea da edozein erakunde, entitate politiko edo sindikaletik".

Erreindikaziorako jai

Urtarrilaren 13an bi urteetan zehar antolatutako mobilizazioak ospatzeko jai berezia antolatu zuen Txingudiko

Pentsionisten Mugimenduak. San Juan plazara hurbildu zirenen artean txistorra pintxoak eta sagardoa banatu zituzten. Eskualdeko pentsioniste mugimenduko ordezkariak mikrofono aurrean azaldu zuten, "astelehen hau jai egunean bihurtu nahi dugu, nahiz eta gure aldarrikapenak barnetik eraman". Asteleheneko ohiko erreindikazio ekitaldia jai giroan bihurtzeko, Super Amarak, Belasko Okindegiak, Ola Sagardotegiak, Irungo Udalak eta Sargia tabernak, besteak beste, lagundu zuten jaiaren antolaketan.

Aldarrikapen irmoak

Espainiako gobernu berriaren eraketarekin pentsioen borrokan urrats berriak ematea espero du Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak. Izan ere, II. Errepublikaz geroztik bi alderdi politikok koalizio moduan aginduko dute lehen aldiz. Horrela, pentsionistek mugimenduaren eskaerak koaliziozko gobernu berriaren proiektuan jasotzea eta aurrera ateratzea espero dute.

Txingudiko Pentsionisten Mugimendutik adierazi dutenez, "presioa egiten jarraituko dugu, legeen bide gure eskaerak ze-

"Mugimendua independentea da edozein erakunde, entitate politiko edo sindikaletik"

Txingudiko Pentsionisten Mugimendua

haztu eta EBOean jaso arte". Horrela, lehen kontzentrazioak abiatu zirenetik pentsionisten erreindikazioetan aldaketa gutxi egin dira.

Zentzu horretan, gutxieneko pensio batzuk defendatzen dituzte, pentsionista gustiei bizitza duina izatea ahalbidetuko diena. Horretarako, adibidez, erosketa ahalmena zihurtatzeko, pentsioak KPIaren arabera erregularizatzea eskatzen dute. Hortaz gain, etorkizuneko pentsionistetzako pentsioak bermatzea aldarrikatzen dute. Gainera, emakume eta

gizonen pentsioen arteko aldea ezabatzea eskatzen dute, kopuruak berdintzeko asmoz.

"Presioa egiten jarraituko dugu, legeen bide gure eskaerak zehaztu eta EBOean jaso arte"

Txingudiko Pentsionisten Mugimendua



Fernando Vergara
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Emakume migratzaileen ikuspuntua aztergai Parean elkarteak antolatutako hurrengo erakusketan



Parean elkarteak Emakume Migratzaileak (AK) Artean erakusketa antolatu du urtarrilaren 17tik 30era. Palmera Montero gunean egingo da erakusketa eta Irungo hirira etorritako 8 emakumeen historia biltzen da bertan. Erretratu eta bertsoen bitartez jatorri ezberdineko irundar hauen parekotasunak agerian jartzeko helburua du erakusketak.

Erakusketaren aurkezpen ekitaldia urtarrilaren 17an, ostiralean, izango da. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da Palmera Montero gunean eta erakusketako protagonistak diren emakumeak bertan izango dira. Hortaz gain, proiektuan lan egin duen Gari Garaialde argazkilariak eta Irunabar elkarte bertsolariak ere aurkezpen ekitaldian parte hartuko dute. Parean elkarte Miren Lantz kideak azaldutakoaren arabera, "proiektua aberasteko eskualdeko artista eta taldeen arteko lankidetzak oinarritzko iruditu zaigu". Lankidetzak horri esker, 8 emakume etorkinen bizipenak argazki eta bertsoen bitartez ezagutuko dituzte erakusketara hurbiltzen direnek. Gainera, Lantzek gaineratu duenez, hasiera batean bertsoekin disko bat sortzeko asmoa zegoen, baina, proiektua garatzeko lortutako diru-laguntzen kopurua ikusita, ideia hau alde batera utzi behar izan zuten.

Emakume Migratzaileak (AK) Artean erakusketak era askotariko errealitateak bizi izan dituzte emakumeen testigantzak bilt-

zen ditu. Erakusketaren bitartez ahotsa eman nahi izan zaien emakume batzuek kilometro gutxi zeharkatu zituzten iraganen Irunera iristeko eta badira orain dela bost hamarkada baino gehiago etorritakoak. Beste batzuek, ordea, itsaso eta ozeano zabalak zeharkatu zituzten honaino iristeko.

Erakusketan Felicianaren historia kontatzen da, Caceres atzean utzi eta trenari esker Irunera iritsi zen neskatoarena. Raquelek, aldiz, indarkeria matxistak eragindako beldurraren ondorioz Nigeria atzean uztea erabaki zuen. Nati abenturazalea sanferminetara egindako bidaiak bultzatuta etorri zen Euskal Herrira. Gainera, emakume migratzaileen inguruko proiektu honek lau seme-alabaren ama eta laginle porrokatua den Liliana bezalako emakumeen bizitzak ezagutzeko aukera emango du. Guztira, zortzi emakume, zortzi erretratu eta bertsoen bitartez jasotako zortzi historia.

"Proiektua aberasteko eskualdeko artista eta taldeen arteko lankidetzak oinarritzko iruditu zaigu"

Miren Lantz, Parean elkarte kidea

"Emakumeen istorioak, eta emakume etorkinenak bereziki, hauspotzeko ahalegina da proiektu hau", azaldu dute Parean elkarte kideek. Azaleko kolore anitzek eta ezberdintasun kulturalen gaintik, erakusketako antolatzaileek kasu ezberdinetan errepikatzen diren sentimendu, gertakari eta bizipenak antzeman dituzte. Izan ere, emakume guzti horiek egindako bidaien atzean desira berbera ezkututzen da: bizitza duin berri bat topatzeko nahia. Haien bizitza hobetzeaz gainera, emakume horiek egindako bidaiak egungo irundarretan ere eragina izan duela nabarmendu du Parean elkarteak, haien jakintza eta bizipenak gizartera transmitituak izan diren aldetik. Erakusketak amaitu ondoren, bertan bildutako informazio guztia Irungo hiriaren historiaren parte bihurtzea espero dute antolatzaileek, pixkanaka, hutsuneak bete eta historiaren puzzle erraldoia osatzen laguntzeko asmoz.

Hutsuneen ahotsak

Parean elkarteak azaldu duenez, pertsonen baten joan etorriek hiriaren historia markatzen dute. Zentzu horretan, Aduanak, trenaren etorrerak edota baserritar gune batetik gaur egungo Irungo erakusketaren inguruan azaldu dutenez, "aitortu eta kontatutako historia da hau". Proiektuaren izaerari dagokionez, Miren Lantz Parean elkarte kidea adierazi duenez, "Parean elkartetik ideien transmisiorako kultura eta artea elkartzea garrantzitsua dela uste dugu".

Era honetan, belaunaldi batetik bestera historiaren zabalpenaren itzaletan gelditzen diren gertakari eta bizipenak bildu nahi izan ditu Parean elkarteak erakusketak honen bitartez. Izan ere, emakumeek historiari egindako ekarpena bigarren maila batera kondenatu egon da ia beti. Liburuetan ez dituzte emakumeen eginkizunak biltzen eta, are gutxiago, ez dute haien bizipenetan erreparatzen. Ondorioz, emakumeen historia ezkutuan mantendu izan da orain dela gutxi arte. Emakumeen historian galdutako pasarte horien artean aurkitzen dira emakume etorkinen testigantzak, hau da, etorkizun oparo baten bila haien sorterrria atzen utzi eta bizitza berri bat hasteko asmoz Irun bezalako hirietara etorri ziren emakumeek bizitakoak.

"Parean elkartetik ideien transmisiorako kultura eta artea elkartzea garrantzitsua dela uste dugu"

Miren Lantz, Parean elkarte kidea

Zaisa Txingudi errugbi taldea emaitzak hobetzen ahaleginduko da denboraldiaren bigarren zatian



Txingudi errugbi klubak urtarrilaren 11eko 16:00etan Getxoren kontrako partidua jokatu zuen Plaiandun. Gabonetako geldialdiaren ostean klubak jokatu duen lehen partidua izan da. Txingudiko taldeak bizkaitarren kontrako partidua galdu zuen. Bizkaiako lurretan jokaturako joaneko partiduan Txingudiko taldeak ez zuen zortea bere alde eduki, izan ere, alde handiagoarekin galdu baitzuten partidua, zehazki, 39 puntuetako diferentziarekin.

Urtarrilaren 11ko partiduan Zaisa Txingudiko jokalariek 16 puntu sartu zituzten markagailuan Getxoko taldekoek lortutako 21 puntuen atzetik. Hala ere, Iñigo camarero klubeko ordezkariak adierazi zuen, "garaipena lortu ez arren, sentsazio positiboak izan genituen partiduan zehar". Izan ere, Getxoren aurka jokaturako lehen partiduan bi taldeen arteko aldea handiagoa izan zen. Plaiandiko lurretan, aldiz, Txingudiko mutilak partiduaren lehen zati gehienez nagusi izatea lortu zuten, horrela, aurkariari irabazteko aukera gertuago ikusiz. Hala ere, azken momentuak garaipena eskuratzeko aukerak irundarren eskuetatik ihes egin zuen.

Getxoko taldea ez da aurkari erraza Zaisa Txingudi errugbi klubeko jokalarientzat, izan ere, denboraldia azken sailkapeneko lehen postuen artea amaitzeko helburua duen taldeetako bat baita. Hala ere, egia da jokalaria bizkaitarrek partiduak etxetik kanpo jokatzeko dituztenean joko maila baxuagoa izan ohi dela Txingudi Errugbi klubetik azaldu dutenez.

Gabonetako geldialdiaren ostean, Zaisa Txingudi taldeak

"Garaipena lortu ez arren, sentsazio positiboak izan genituen partiduan zehar"

Iñigo Camarero, Txingudi Errugbi Klubeko ordezkaria

denboraldiaren lehen zatian bajaran amaitu zuten hainbat jokalaria berreskuratzeko aukera izan du. Lesioak sendatzearekin batera, taldera itzuli diren jokalariek taldera indar berriak ekarri dituztela nabaritu da denboraldiko bigarren erdiko erronkei aurre egiteko. Hala ere, Iñigo Camarero klubeko ordezkariaren hitzetan, oraindik denbora gehiago beharko da taldera batu diren jokalaria berri eman dezaketen gutzia ikusteko. Gainera, Zaisa Txingudiko taldera batzeko asmoarekin dabilen jokalaria berri bat dagoela aurreratu du Iñigo Camarero eta, beraz, baliteke hemendik gutxira jokalarien artean aurpegi berri bat ikustea.

Denboraldi amaieraren mamua

Txapelketaren amaierara begira, sailkapenaren azken postua gelditzen den taldeak azpiko kategoriara behera egingo du. Sailkapenean azkenaurreko postuan sailka-

tzen denak, aldiz, promoziozko partidua jokatu du Euskal Ligako bigarren dibisioko bigarren sailkatuaren kontra. Txingudiko taldeak sailkapeneko azken postu horiek saihestea izango du helburu denboraldi amaierara begira eta, horretarako, Gernika eta Elorrio bezalako taldeen aurrea hartzeko modua bilatzen saiatuko da, talde horiekiko puntu desberdintasuna txikiagoa baita.

Hortaz, emaitzak hobetzeko helburu orokor horren barruan, Zaisa Txingudi taldea denboraldiaren bigarren erdian indartsuago ibiltzea espero du. Horretarako, Iñigo Camarero azaldu duenez, "denboraldiaren bigarren zatian serioago jokatzeko ahaleginduko gara". Zentzu horretan, entrenamenduetan zein partiduetan kontzentrazioa ez galtzea izango da talde irundarrak jarraituko duen estrategia. Momentuz, Zaisa Txingudi taldearen hurrengo hitzordua urtarrilaren 18an izango da Durangoko lurretan.

Oroimenerako minutua

Urtarrilaren 11keko partidua hasi aurretik, klubeko jokalaria ohi izandako Manu Taberna gogoratzeko isiltasun minutu bat mantendu zen, ustekabean urtarrilaren 5ean zendu baitzen. Zaisa Txingudi klubeko familiak tamalez jaso zuen albistea eta haien doluminak eman nahi izan dizkio jokalaria ohiaren senide eta lagunei.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Ana Iturria, Erroibide klubeko presidentea:

“Erroibiden oso pozik gaude aurten nesken sekzioa osatzea lortu dugulako”



Argazkia: Estudio Gover

Erroibide klubak ez du Gabonetan atseden hartzeko geldialdirik egin. Gabonetako Torneoa antolatu ondoren, denboraldiko hurrengo erronkei aurre egiteko prest daude klub irundarreko jokalariek. Ana Iturria klubeko presidentea azaldu duenez 2019-2020 denboraldiak nobedade garrantzitsuak ekarri ditu Erroibidera.

Zein da une honetan Erroibidek bizi duen egoera?

Erroibide klubak oso une goxoa bizi du momentu honetan, izan ere, jende berri asko batu da klubera saskibaloia praktikatzeko asmoz. Ez dakigu zergatik, baina, oso denbora gutxian kluba asko handitu da, beraz, oso gustora gaude egungo egoerarekin.

Nola ekin diozue 2019-2020 denboraldiari?

Oso ondo. Orain, guztira, 11 talde dauzkagu ia 150 kirolariez osaturik daudenak. Hortaz gain, ondo osatutako taldeak direla esan dezakegu. Denboraldia ondo doa eta jendeak saskibaloian aritzea atsegin duela nabari da.

Gabonetan atseden hartzeko tarterik hartu duzue?

Gabonetan ere errutinari murgildurik jarraitu dugu, izan ere, Gabonetako Saskibaloia torneo antolatu dugu. Asteazken zehar entrenamenduekin jarraitu dugu eta asteburuetan, aldiz, Artaleku eta Azken Portu kiroldegietan jokaturako partiduak ikusten egon gara.

Denboraldi honetarako Erroibiden nobedade garrantzitsuak duzue?

“Orain, guztira, 11 talde dauzkagu ia 150 kirolariez osaturik daudenak”

Bai, Erroibiden oso pozik gaude aurten nesken sekzioa osatzea lortu dugulako. Horrela, talde maskulinoez gain, kategoria guztietan neskek osatutako taldeak dauzka Erroibidek. Oso lorpen handia izan da guretzako.

Beraz, Erroibiden emakumeak indartsu datoz?

Guretzat zaila zen emakumezkoen sekzio osoa lortzea, izan ere, Hondarribian aspalditik taldeak zeuzkan beste klub bat geneukalako. Hala ere, gure neskek gurekin eroso daudela dirudenez eta elkarren artean ondo moldatzen direnez, jende berria erakartzea errazagoa da.

Eskolan, berriz, klubaren etorkizuneko jokalariek daukazue?

Bai, eskola oso polita da guretzako, izan ere, umeak alde batetik bestera korrika dabiltzan bitartean zein ondo pasatzen duten ikusten dugulako. Pixakanaka ikasten doaz. Duela gutxi guraso eta jokalaririk helduagoekin partidu bereziak jokatu dituzte.

Sanmartzialetan 3x3 Saskibaloia txapelketa antolatzen jarraitzeko asmoa duzue?

Bai, bereziki mutilei asko gustatzen zaien txapelketa mota da. 3x3 Saskibaloia Txapelketa gure kirola kalera ateratzeko modu bat da, horrela, ingurutik pasatzen den jendeak Irunen saskibaloia talde bat dagoela ikusi dezake.

Gainera, jokoa guztiz ezberdina da ohiko partiduekin alderatuta.

Zeintzuk dira denboraldi amaierara begirako helburuak?

Ez dugu helburu zehatzik. Daukagun diruarekin denboraldi amaierara iristea da gure lehentasuna. Hortaz gain, jendea gustora egotea eta gu ere eroso sentitzea garrantzitsua da.

Saskibaloian modan dago berriz?

Bai, nik uste telebistan geroz eta saskibaloia partidu gehiago ematen dituztenez, jende gaztearengan saskibaloia probatzeko nahia piztu du. Gainera, aspaldi klubean ibilitako jende asko gure senior taldeetara itzuli da.

Zeintzuk dira saskibaloia praktikatzearen onurak?

Oso kirol konpletua da. Ariketa fisikoa egiteaz gainera, buruko lan asko eskatzen duen kirola da. Gainera, ingurura begiratzea eskatzen du taldekideengan pentsatzeko. Azkenik, laguntasunaren kontzeptua ere oso garrantzitsua da.

“Aspaldi klubean ibilitako jende asko gure senior taldeetara itzuli da”

Jaizkibel itsasertzeko bidea itsasabar eta koloreen artean

Gorka Martinez

Unpaisenmimochila.blogspot.com

Ibilbidea: 8 ordu eta 30 minutu
(geldialdirik gabe).

Zailtasuna: Zaila, oso ibilbide luzea delako eta zailtasun tekniko altuko zenbait igarobide zeharkatu behar direlako bidean zehar.

Ibilbidea goiz hasiko dugu eta kotxez Higerreko itsasargiraino hurbilduko gara. Ibilbidearen lehen zatian Talaia Bidea (GR-121) markatzen duten marra zuri-gorriak jarraituko ditugu. Lehen igoera eta jeitsieren ostean, Jazkibekeko lehen kaletara iritsiko gara. Horrela, ordu beteko ibilbidea egin ostean Errotaren kalan izango gara, ondoren, malda igo eta belardi berde bateraino iristeko.


Bidean ordu eta erdi egin ostean, Bainerak ize- nez ezagutzen den kala topatuko dugu.

Belardiak zeharkatzen jarraituko dugu kala eta bidean topatutako zaldiak tartekatuz Biosnar lurmuturreraino iritsi arte. Horren ostean, bi marra zuriekin barnealdeko bidera (GR-121) zuzentzen gaituen kartela ikusiko dugu, baina, Talaia bidea alde batera utzi eta kostaldeko bidetik jarraituko dugu Fosilen kalaraino iritsi arte. Kala honetan forma harrigarriak dauzkaten harriak topatuko ditugu. Bidean topatuko dugun hurrengo kala Erentzin izango da eta bidea mozten digun horma bat topatuko dugu bertan. Horma saihesteko, basoan murgildu eta errekatsoa zeharkatuko dugu horma gainera iritsi arte, bertatik, pasaiaren bista ederrez gozatzeko.

Behin 4 ordu eta 45 minututako bidea eginda maskor itsurako harkaitza ikusiko dugu. Bost orduren ostean, Labetxura iritsiko gara bertan bazkaldu eta atsedean hartzeko. Berrio bideari ekin eta Tximistakurrutuako pitzaduraraino iritsiko gara bidean 6 ordu eta 15 eman ostean. Urrunean Azabaratzako etxola ikusiko dugu eta gure bidearekin jarraitu ahal izateko horma bat zeharkatu beharko dugu berriro, ibilbide osoko puntu gatatzatsuenetako bat izan daitekeena.

Puntu horretatik aurrera gora-behera handiko ibilbidea izango dugu aurretik. Ibilbideko igoera handienetako bat egin ostean, bainuontziez betetako zelai bat gurutzatuko dugu Jazkibel zeharkatzen duen errepederaino iritsi arte. Errepide bazterretik 500 metro egingo ditugu. Talaia bidea jarraituz gero, Pasaiaraino iristeko aukera dugu, baina, guk laburragoa den Lezoko bidea hartzea nahiago dugu.

Errepidearen albotik jarraituko dugu Done Jakue bidearen seinaleei jaramon eginez, bide zabal bat jarraituko dugu urmael baten albotik igarotzeko. Ondoren, estuagoak diren bideetan behera egingo dugu Lezoko lehen etxeetara iritsi arte. Lezon garraio publikoa hartuko dugu etxera itzuli eta Jaizkibekeko itsasertzean zehar egindako ibilbidea amaietzeko.



Txingudi Ikastola LH1

TXINGUDI IKASTOLAKO 1. ZIKLOKO
familiek egindako ekarpenak.



Denbora-pasak

Zazpi hitz: Sagardotegia

A U E O I T T U E G U C C
 L L L T A U L X R L A T I
 E C R R L I X L U O L A E
 P M U N A K U O E L C O B
 U E I K A S T D X A E I T
 K L A B D L E R D R A T S
 L B N S R S T A E T L C A
 P A G A A P D G O I E L D
 B E R T S O L A R I L M I
 U R I X S U X S I E I N R
 A A R X M T X T O X T A R
 Y E B A R I O P L A L G A
 B T A S K I E T A O S A R

	1	4	5		2	9		
5	7	9		4		2		8
	2					5		
		2	3					
		8		2	9	3		
			8					
		1	8					3
				3	4	8	7	
			6		7	4		

Txotx, Ola, kupela, txuleta, sagardo,
bakailu, bertsolari

Euskaraz, Irunen barrena

Nausia ta morroiya. Biyaken istoriyua (Tobera kanta)

Ai mutill, jaiki yari
egun ote den begi yari.

Nagusiya, eguna da
gure ollarra jaikiya da.

Ai motell, jaiki yari
euriya ote den begi yari.

Nagusiya, euriya da
gure txakurra bustiya da.

Ai motell, jaiki yari
surik ote den begi yari.

Nagusiya, sua bada
gure katua berua da.

Irungo S.R.A. andereari jaso (1959-VII-19).
Gazteek kantatzen zuten. (El Bidasoa, 1959-X-17)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Eguzkitza DBH2

INURRIA ETA USOA

Uso batek behin, zuhaitzi baten gainetik hegaka zihoala, inurri bat ikus zuen erreasto batean, itotzeko zorian. "Inurri gaixoa" esan zuen bere artean.

Usoa inurria salbatu zuen, eta inurriak esan zion:

-Eskerrik asko, nire bizitza salbatzeagatik!

-Ez da ezer, seguru zu beste batean salbatuko nauzula!

-Ez dut uste, ni zu salbatzeko oso txikia naiz eta

-Horrek berdin du! Saiatzekotan lortuko zenuke

-Hori egia da

-Beno, beste bat arte, agur

-Agur eta eskerrik asko

-Beste bat arte!

Bi egun pasata, ehiztari batzuk bere furgonetan zeudela, uso batzuk pasa zirela ikustean, tiroka hasi ziren. Furgonetako erremolkean gorde eta lotu, oraindik bizirik egonda, inurriak ikusi zuen eta bere bila joan zen. Usoak ezan zion:

-Ezin izango nauzu hemendik ateral!

-Noski, haitz!

Inurria sokak puskatzen hasi zen eta ahalik eta azkarren usoa kutxatik atera eta biak basora ihes egin zuten. Handik aurrera elkarrekin bizi izan ziren.

Irakaspena: Maitasuna maitasunez ordaintzen da.

Guillermo Ortiz eta Nora Otsoteko. Eguzkitza BHI. 2.B



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Martxan da Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren V. edizioa

“Ez zaude bakarrik” gaia abiapuntutzat izango dute testu parte-hartzaileek

Martxan da Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren V. edizioa “Zurekin nago” lelopean. Lehiaketaren aurreko edizioetan bezala, parte-hartzaileak bi kategorietan banatuko dira, batetik, 10 eta 16 urte arteko gazteak eta, bestetik, 16 urtetik gorakoak. Lanak 2020ko otsailaren 9a baino lehen entregatu beharko dira. Euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako testuak aurkeztu ahalko dira lehiaketara.

Lehiaketaren V. edizioan ere “Ez zaude bakarrik” gaia hautatu da testuen abiapuntu gisa. Izan ere, gai horren bitartez berdintasunaren aldeko jendartea bultzatzea eta genero indarkeria baztertzeko bilatzen dute ipuin lehiaketako antolatzaileek. Parte hartzaile bakoitzak lehiaketara idazlan bakarra aurkezteko aukera izango du. Guztira, 4 kategoria bereiziko dira Asun Casasola ipuin lehiaketaren barnean parte hartzaileen adin eta ipuinaren hizkuntzaren arabera bereiziko direnak.

Lanak otsailaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira eta, horretarako, ipuinak posta arruntaz edo posta elektronikoz bidaltzeko aukera eskainiko zaie parte-hartzaileei. Posta arunta hautatzen dutenek Brontë liburu-dendaren helbidera bidali beharko dituzte haien sormen lanak. Poste elektronikoz bidaltzen direnak, aldiz, asuncasasolaipuina@gmail.com helbidean jasoko dira. Hortaz gain, ipuinak ezizen batekin sinaturik eta kontakturako informazioa beste alde batetik aurkezteko garrantzitsua izango da lehiaketaren antolakuntzarako oinarrietan zehazten denez.

Epaimahaia Antolakuntzak osatuko du, erakunde horretako kideen eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahai horrek aukeraketa egingo du. Deliberoa 2020ko martxoan ezagutaraziko da, Emakumearen Egunaren inguruan antolakuntzak egingo duen ekitaldi berezian. Hala ere, irabazleei modu pertsonalean jakinaraziko zaie lehenago.

Irabazleentzako sariak

Kategoria bakoitzeko irabazle bat izango da; guztira, lau saridun. Diru sari eta liburu sorta bana jasoko du haietako bakoitzak. 10-16 urte bitarteko kategorietako irabazleek 100 euroko diru saria izango dute, 16 urtetik gorako kategorietako irabazleek 300 euroko diru saria jasoko duten bitartean. Liburu sortek 50 euro inguruko balioa izango dute eta antolakuntzak aukeratu dituzten horiek osatuko dituzten liburuak: mezu feminista duten obrak edota emakumezko autorea dutenak izango dira guztiak. Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaia hala erabakitzen badu.

V. ipuin labur lehiaketa
ASUN CASASOLA



asuncasasolaipuina.eus



Gazteentzako tartea

Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren 3. ediziotik aurrera lehiaketan idazle gazteentzako tartea irekitzea lortu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker. Horrela, 10 eta 16 urte arteko gazteentzako kategoria berezia sortzea lortu zen. Antolakuntzatik adin tarte horretarako nerabe guztiak lehiaketaren V. edizioan parte hartzera animatzen dituzte. Asun Casasola lehiaketako antolatzaileek azaldu dutenez, “gazteek indarkeria matxistaren aurkako hausnarketak ipuinetan islatzea nahi dugu”.

Asun Casasolari aitortza

Asun Casasolaren borroka eta kemenari aitortza egiten

jarraitzeko asmoz, Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren edizio berria martxan da, “Zurekin nago” lelopean. Lehiaketaren antolakuntzaren helburu nagusiek bere horretan jarraitzen dute hasieratik: berdintasunaren aldeko jendartea bultzatzea eta genero indarkeria baztertzeko. Horregatik, edizio honetan ere, ikuspuntu positibo bat bilatuko da, indarkeria matxistaren aurkako borroka islatzen duena. Horretarako, ipuina originala, argitaratu gabea eta aurkeztu den hizkuntzan idatzitakoa izan beharko da, tarteko itzulpen zuzenik gabe.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meakak auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com  



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webgunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Betti Gotti ezagutu nahi?

Betti Gotti euskara kultur elkarte gara. Betti Gotti elkartearen barnean gurekin lan egitera animatuko zinateke? Euskaraz egin, jolastu eta bizi nahi dugu! Elkarte ezagutu eta Betti Gottiren parte izateko interesa duten pertsonak Instagrameko @BettiGotti profilean edo bettigotti@hotmail.com posta elektronikoen bitartez elkartearen kideekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.

Azken Eurodesk buletina webgunean irakurgai dago jada!

Gazteen mugikortasunerako informazioa eskaintzen du Eurodesk. Horrela, gazteek prestakuntzarako aukerak eta Europako batzordeko hainbat erakundeetan praktikak egiteko aukerak topatu dituzte.

Buletina: 2020ko urtarrileko buletina injuve.eus webgunean kontsultatu daiteke.

Zalantzak: Galderaren bat egin nahi duten gazteek eurodesk@injuve.es helbidera idazteko aukera dute.

Eman izena iGazteko buletin elektronikoa!

Enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntariora eta beste-lako ekintzen berri izan nahi duzu?

Eman izena iGazteko buletin elektronikoa eta zure posta elektronikoa jasoko duzu zure intereskoa izan daitekeen informazio guztia!

Hortaz gain, iGazteko webgunean buletinaren azken bertsioa kontsultatzeko esteka topatuko duzu.

EuskarAbenturaren parte izan nahi duzu?

Zer da EuskarAbentura? Euskal Herriko zazpi lurraldeetako nahiz diasporako 16-17 urte bitarteko 120 neska-mutil euskal geografia, kultura eta historia lagunartean ezagutzera eramango dituen oinezko espedizioa da EuskarAbentura.

Noiz: Uztailean.

Adina: 16 eta 17 urte arteko gazteentzat.

Epea: Martxoaren 15era arte lanak bidaltzeko aukera.

Informazio gehiago: Euskarabentura.eus webgunean.

Parte har ezazu! Zeu izan zaitezke EuskarAbenturaren protagonistetako bat!

Euskadiko gazteak lankidetzan 2020

Hiru hilabeteetako esperientzia izango da. Garapen ekintzak hegoaldeko herrialdeetan egin ohi dira, hau da, Amerika, Asia eta Afrikan.

Bete beharreko baldintzak:

- 1) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri bateko erroldan inskribatuta egotea.
- 2) 1990 eta 1998 artean jaio izana, bi urte horiek barne.
- 3) Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menperatzea.

Izen ematea: Otsailaren 6ra arte.



Urtarrilak

16

Hitzaldia:
"Irun Nafarroako konkistan zehar"

Zer: Peio Monteano historialariaren hitzaldia San Martzial Guduaren V. Mendeurrena Fundazioak antolatuta.

Non: Oiasso Erromatar Museoa.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Doakoa.

17

Pelikula: Zubiak

Zer: ETaren biktima izan zen Juan Mari Jaurigiren alargunaren eta bere hiltzailearen arteko elkarrizketa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doakoa, baina, gonbidapena eskuratzea beharrezkoa izango da.

Iraupena: 82 minutu.

Oharra: Jon Sistiaga kazetari irundarrak eta filmaren zuzendarikideak pelikularen aurkezpenean parte hartuko du.

18

Musika: Gari & Maldanbera

Zer: "Beste denbora batean" izeneko emanaldia eskeiniko du artistak.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: 7,75 euro.

Sarreraren salmenta: Amaia Kultur Zentroaren webgunean aurkitzen da sarreraren salmentarako esteka.



Denbora-pasen emaitzak

A	U	E	O	I	T	T	U	E	G	U	C	C
L	L	T	A	V	L	R	L	A	T	I		
F	C	H	R	L	I	X	L	O	U	L	A	E
P	M	D	N	A	X	U	V	E	C	O	B	
J	E	I	K	A	S	T	P	E	A	T	I	T
K	L	A	B	D	L	E	R	D	R	A	T	S
L	E	N	S	R	S	T	A	E	T	L	C	
P	A	G	A	A	P	D	D	I	E		D	
S	C	H	I	N	G	L	A	R	I	L	M	I
U	R	I	X	S	U	X	E	I	N	R		
A	A	R	X	H	T							
Y	E	E	A	R	I	O	F	I	A	L	G	A
B	T	A	S	K	I	E	T	A	D	E	A	R

8	1	4	6	6	2	9	3	7
5	7	9	1	4	3	2	6	8
3	2	6	9	7	8	5	1	4
4	6	2	3	6	1	7	8	9
1	5	8	7	2	0	3	4	6
9	3	7	4	8	6	1	5	2
7	4	1	8	9	5	6	2	3
6	9	5	2	3	4	8	7	1
2	8	1	6	1	7	4	9	5

23

Liburu aurkezpena

Zer: Angel Garcia Ronda idazleak "Tal vez hubo una guerra".

Non: CBA Udal Liburutegiko erabilera anitzeko aretoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea.

25

Bizinema Bang Bang emanaldia

Zer: "Batman" eta "Los Cazafantasmas" filmen emanaldia bertsio originalean, bestelako animazioekin girotuta.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Prezioa: 5,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

26

Musika: "Munduari bira 80 dantzatan"

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren emanaldia Jon Menor, Josune Gurrutxaga, Agustin Alzaga eta Irati Munduate dantzariekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

30

Zure abenturaren bila: Nepal 1.000 KM baino gehiago mendi artean

Zer: Raquel Garciaeren hitzaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Hizkuntza: Gaztele-raz.

Sarrera: Doan, tokiak bete arte.



Urtarrilak 25

Amaia Kultur Zentroa

Sarrera
(bi pelikula) **5,50€**

Sarrerak salgai:

Luis Mariano-ko turismo bulegoa - www.irun.org/entradas

GH~~O~~STBUSTERS™

BATMAN

17:30 Irekiera
18:00 Cazafantasmas
20:30 Batman

ROCK

Coca-Cola

telepizza



TINTA COMICS

